**JAUN/ANDRE HORI:**

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2024ko URRIAREN 22an,** 09:30ean, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

**EXCMO\A. SR.\A:**

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 09:30 horas del día **22 DE OCTUBRE DE 2024**, con el siguiente

| GAI-ZERRENDA | | ORDEN DEL DÍA |
|---|---|---|
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| **EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO** |
| Dekretu-proiektua, Inklusiorako Euskal Kontseiluarena. | 2 | Proyecto de Decreto del Consejo Vasco para la Inclusión. |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Espainiako Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoarekin sinatutako hitzarmenaren luzapena izenpetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-erregistroetan gordailututako erregistro-inskripzioak eta urteko kontuak estatistikoki aprobetxatzeko. | 3 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la prórroga del Convenio suscrito con el Colegio de Registradores de la Propiedad y Mercantiles de España, para el aprovechamiento estadístico de las inscripciones registrales y cuentas anuales depositadas en los registros mercantiles de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| **GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO** |
| Erabaki-proposamena, Etika Publikorako Batzordeko idazkaria izendatzekoa. | 4 | Propuesta de Acuerdo de designación de Secretario de la Comisión de Ética Pública. |

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Eusko Jaurlaritzak Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Batzar Nagusian izango duen ordezkaria izendatzeko dena. | 5 | Propuesta de Acuerdo de designación de la persona representante del Gobierno Vasco en la Asamblea General de Elkarkidetza Entidad de Previsión Social Voluntaria. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 6 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| **INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD** |
| Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Basque Research and Technology Alliance - Euskal Partzuergo zientifiko-teknologikoaren Batzar Nagusian duen ordezkari bat kargutik kendu eta beste bat izendatzekoa. | 7 | Propuesta de Acuerdo de cese y nombramiento de un representante de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco en la Asamblea General del Consorcio Científico-Tecnológico Vasco - Basque Research and Technology Alliance. |
| **SEGURTASUN SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD** |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastu-kontratua baimentzekoa, Segurtasun Sailaren IBMren hardwarea eta softwarea eguneratzeko. | 8 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un contrato de gasto superior a 5.000.000 de euros, para la actualización del hardware y software de IBM del Departamento de Seguridad. |
| **ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA** |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Zorrotzaurreko 1. EUko RZ-7 lurzatia trukatzeko, Bilboko Udalaren Zorrotzaurreko 1. EUko RZ-2 lurzatiaren %12,5230arekin eta RZ-15 lursailaren %21,5769rekin. | 9 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la permuta de la parcela RZ-7 de la UE1 de Zorrotzaurre, de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el 12,5230% de la parcela RZ-2 y el 21,5769% de la parcela RZ-15 de la UE1 de Zorrotzaurre, del Ayuntamiento de Bilbao. |
| **ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA** | | **DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN** |
| Erabaki-proposamena, Ikerbasque Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, Ikerbasque Research Associates-eko langileen ikerketa-karrera bultzatzeko. | 10 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Ikerbasque/Ikerbasque Fundazioa para el impulso a la carrera investigadora del personal de Ikerbasque Research Associates. |

11

Erabaki-proposamena, BCMaterials entitateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, material aurreratuetan bikaintasun-ikerketa bultzatzeko: energia-laborategien inplementazioa, nanokimika, ingurumena erremediatzeko materialak eta mikrofabrikazioa.

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a BCMaterials, para el impulso a la investigación de excelencia en materiales avanzados: implementación de los laboratorios de energía, nanoquímica, materiales para remediación medioambiental y microfabricación.

**IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK**

**NOMBRAMIENTOS Y CESES**

**LEGEBILTZAR-EKIMENAK**

**INICIATIVAS PARLAMENTARIAS**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 17a.

En Vitoria-Gasteiz, 17 de octubre de 2024.

**IZPTA./FDO.: UBARRECHENA CID, MARIA.**
**GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU, JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO, SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

**LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2024ko URRIAREN 22ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO**

KONTUTAN IZANDA

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuela, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituena, erabaki horren arabera, beharrezkoa dela lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, baimentzea bilera horiek telematikoki egitea.

Madrilen izango den Metafuturo 2024 ekitaldira bertaratuko naizela-eta, urriaren 22an Euskaditik kanpo izango naiz, alegia, Gobernu Kontseilua egingo den egunean kanpoan izango naiz, hori dela eta, ezin izango naiz Vitoria-Gasteizen egingo den bilerara aurrez aurre bertaratu.

Bilkura balio osoz eratzeko, eta ordezkoa izendatu ezean, beharrezkoa da ni bertara joatea, fisikoki edo telematikoki, lehendakari eta eztabaidak zuzentzeko arduradun gisa.

Aztergaien zerrenda arrunta denez, eta ebatzi beharreko gaiak ikusita, bilera telematikoa egin behar da, lehen aipatutako Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dutela, bideokonferentzia bidez, irudiaren eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izatea. Halaber, bermatu egiten dutela eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

**AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DEL 22 DE OCTUBRE DE 2024 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA**

CONSIDERANDO

Que con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

Que con motivo de asistir al encuentro Metafuturo 2024, que se celebra en Madrid, estaré fuera de Euskadi el día 22 de octubre, fecha de la celebración del Consejo de Gobierno, por lo que no podré asistir físicamente a la reunión a celebrar en Vitoria-Gasteiz.

Que, para la válida constitución de la sesión, y salvo que nombrase sustituto, es necesario que yo asista física o telemáticamente a la misma, como Presidente y encargado de dirigir las deliberaciones.

Que, dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Que los medios técnicos indicados en esta Autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria

El Lehendakari del Gobierno Vasco

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituztela, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik eza, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

Hori dela eta, hona hau

BAIMENTZEN DUT

1.- Gobernu Kontseiluak 2024ko urriaren 22an egingo duen bilera telematikoki egiteko, baimen honetan adierazitako moduan.

2.-Vitoria-Gasteiztik eta Madrildik telematikoki konektatuko diren kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute, esteka honetan sartuta: https://euskadi.zoom.us/j/91301477024

3.- Aipatutako baimena bilkura-deialdiari erantsi dadila, gai-zerrendarekin batera.

Que los medios técnicos indicados en esta Autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.

A la vista de lo cual,

AUTORIZO

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 22 de octubre de 2024, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente desde Vitoria-Gasteiz y desde Madrid, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace: https://euskadi.zoom.us/j/91301477024

3.- Que la presente Autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 15ean.

Imanol Pradales Gil 2024.10.15 08:22:13 +02'00'

Imanol Pradales Gil

Lehendakaria.